

## «UDALEKUAK» PROGRAMAN PARTE HARTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA - 2020

### 1. artikulua.- Objektua. Zerga-egitatea.

Basauriko Udalak haurrentzako «Udalekuak» programaren barruan aurrera eraman beharreko zerbitzuek osatzen duten prezio publiko hauen zerga-egitatea.

### 2. artikulua.- Ordaintzera behartuak daudenak. Subjektu pasiboak.

Hemen araututako prezio publikoak ordaindu beharko dituzte Udalak antolatutako udalekuetan parte hartzen duten pertsona fisikoek.

### 3. artikulua.- Prezio publikoa kobratzea. Sortzapena.

Prezio publikoak ordaindu beharko dira Kultura Atalak onartuen zerrendak argitaratzeko ezarritako data baino lehen.

### 4. artikulua.- Osagai kuantitatiboak.

«Udalekuak» programaren prezio publikoak honako tarifa hauen arabera izango dira, aldaketarik ematen ez bada:

	Erdi eguneko udalekuak	Eguneko Udalekuak	Kirol Udalekuak
1. semea/alaba	51,00	96,00	110,00
2. semea/alaba	39,00	72,00	80,00
3. semea/alaba	32,00	57,00	65,00
4. semea/alaba eta ostekoak	28,00	46,00	51,00
Diru-sarreraren Bermerako Errenta jasotzen dutenak (edo hura izapidetzen ari direnak)	6,00	11,00	13,00
AES edo ANPM (edo izapidetzen ari direnak) jasotzen dutenak uneko urtean	5,00	5,00	5,00

Hala eta guztiz, udalekuetako aldiren batean jaiegunik balego, prezioak honako hauek izango dira:

	Erdi eguneko udalekuak	Eguneko Udalekuak	Kirol Udalekuak
1. semea/alaba	46,00	87,00	99,00
2. semea/alaba	35,00	64,00	74,00
3. semea/alaba	29,00	51,00	59,00
4. semea/alaba eta ostekoak	25,00	41,00	46,00
Diru-sarreraren Bermerako Errenta jasotzen dutenak (edo hura izapidetzen ari direnak)	5,00	8,00	10,00
AES edo ANPM (edo izapidetzen ari direnak) jasotzen dutenak uneko urtean	5,00	5,00	5,00

## **5. artikulua.- Kudeaketa eta likidazioa.**

Kultura Atalak egingo du prezio publiko hauen kudeaketa eta likidazioa. Zenbatekoa aurretiaz ordaintzea eskatuko da, aipatutako instalazioak erabili ahal izateko.

Prezio publikoak, jarduera hasi aurretik ordainduko dira beti. Horretarako, onuradunei kontu-korrontean dagokion kargua egingo zaie Kultura Atalak adierazitako datan eta, betiere, tokien behin betiko esleipena argitaratu aurretik.

Ordainketa ez bada Ordenantza honetan eta aplikagarri diren gainerako xedapenetan ezarritako modu eta epeetan egiten, zerbitzua eten ahal izango da.

Foru Dekretuan arautu gabe dagoen guztiari buruz —bereziki, epeen erregimenari eta zorraren ordainketa-tokiari dagokionean—, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergabilketaren Araudian eta Basauriko Udaleko zerga ordenantzetan xedatutakoari jarraituko zaio.